

Literaturiako manifestua

Zarautz, 2026ko maiatzaren 29a

“Mamu bat dabil euskal literaturan... etorkizunaren mamua. Definizioz dago literatura etorkizunerantz inklinatuta. Baina ni hona etorri naiz etorkizuna hiltzera. Euskal literaturak utzi behar dio geroko irakurleen fantasmen lurralde izateari.”

Déjà vu halako bat sentitu berri duena, bego lasai: zeren ez, hitz horiek ez ziren nireak, eta ez, ez ziren berriak; Iñigo Astizek esan zituen duela urte batzuk, Literaturiako plaza honetan bertan, bere manifestuan.

Bai: plagiatu egin diot. *Sormena* hitz polita da oso, baina badakizue zer dioten: ez dela existitzen, izena baduela baina izan handirik ez, eta egiaz guztia dela erreproduzio bat, plagioaren plagioaren plagio bat.

Eta plagiataileak, horra kondena, atzera begiratu beste erremediorik ez du.

Atzera, bai, hango azken ilarara, adibidez.

Hortxe eserita baitaude Xuban eta Joxepi.

Urtero-urtero etortzen dira Literaturiara. Ez elkarrekin; ez dute elkar ezagutzen; bata *hor* dago eta bestea *han*.

Baina biak dira liburujale amorratuak, plazer eta gose hutsez gainera, Booktoker izateko batere anbiziorik gabe.

Biak dira irakurle kapritxosoak: behar bezalako irakurleak, alegia.

Xuban, egia esan, batez ere besteak inpresionatu nahian hasi zen irakurtzen. Badakizue: burua jantzi eta ea halako batean ligatzen zuen-edo. Eta bide horretan, gauzak zer diren, norekin, eta terrorezko literatura gotikoarekin enamoratu zen.

Joxepiren txikitako etxean apenas zegoen libururik; biblioteca batean lehen aldiz sartu zenean ulertu zuen Victor Hugori egozten zaion harako esaldi hura, hots, irakurtzen ikastea zera dela: su bat piztea.

Lanean eta kuadrillan, Xubani friki esaten diote.

Joxepi idazlea da, eta oraindik ez daki.

Emakume jubilatuz jositako irakurle-taldetik etxeratzen denean, hantxe izaten du senarra afaria prest, betaurrekoen gainetik begiratzuz beti adarra jotzeko pronto, andreari esanez gustu eta irizpide literario xelebrea daukala horratik, berdin-berdin leitzen baititu Joxepik Atxaga *eta* Louisa May Alcott, poemak *eta* komikiak, poliziakoak *eta* existentzialistak.

Baina Xubanek eta Joxepik, biek dakite zer den dar-dar egitea. Literaturarekin dar-dar. Ez, ez dute elkar ezagutzen, baina gero hortxe pasilloan sumatuko dute, elkarren ondotik pasatzean, dardara halako bat.

Literaturak dar-dar egin behar baitu nahitaez: hots bat hartu eta hots hori egin, haren musika izan.

Literatura, bai, musika da, eta musika bibrazioa da, dardara; *ergo*, literatura dardara da.

Ez diot nik, logikak dio.

Eta ez, ez diot *nik*, zeren *nik* ez diot *ezer inoiz*. Dena diogu *guk*. Dena da plagioaren plagioaren plagioa.

Antzinako greziar bat mintzo da 2026 honetan bere lehen poema-liburua idazten ari den baten lumatik, eta “idazle hasiberri” deituko dioten horren letretatik edango du gero Joxepik.

Gauza deabruzkoa da, gero: denboraz eta espazioaz gaindi, literaturzale guztiok gaude elkar poseituta. Eta, manifestu honetan tinko diogu, ez dugu nahi literaturatik exorzizatuak izan.

Edo bai?

Eztabaidarako kontua litzateke hori.

Baina badakizue: literaturaren inguruan, hemen eta gaur, ez omen dago eztabaidarik batere, edo gero eta gutxiago omen dago, eta ez dut nik halakorik eztabaidatuko noski (guarda nazala Axularrek...!), zeren hori eztabaidatuko banu, orduan eztabaida legoke, eta orduan akabo tesia.

Nik ez dakit behar beste irakurtzen dugun, ez dakit behar beste eztabaidatzen dugun, baina badakit katramilatu katramilatzen garela oraindik suelto, ez eta bai, hau ala hura.

“Poesia *ala* hil”

“Ipuina *ala* nobela?”

“Literatura konfesionala *ala* akonfesionala?”

Imajinatzen duzue aukeratu behar bagenu ezinbestean hau *ala* bestea? William Shakespeareren sonetoak *ala* Eider Rodriguezen narrazioak? Oscar Wilderen antzezlanak *ala* Anjel Lertxundiren teselak?

Bata *ala* bestea? Nola bata *ala* bestea??

Bat ez, biak behar ditugu. Biak ez, denak. Behar, eta nahi.

Gerardo Markuletaren hitzak gogoan: batak ez baitu, zorionez, bestea kentzen.

Eta, hala ere, hortxe diraugu itsu-itsuan, bestela ere mardul ez dauzkagun aukerak mirrinduz geure buruari, Amaia Ezpeldoik bere amoranteak maitatzen dituen bezain suharki korapilatuz galdera alfer xamarrek sortutako dilema antzu xamarretan.

“Kontakizunetan, amaiera irekia *ala* itxia?”

“Oharrak, orriaren oinean *ala* liburua irekitzen?”

“Haurren irakurzaletasuna sustatzea oso ondo dago, baina gazteekin zer, e?”

Eta, halako sesioetan gozo-gozo entreteniturik, hortxe segitzen dugu, gazteei gaztelaniaz eta frantsesez literatura unibertsala oparitzen, eta euskaraz, berriz... ba... euskaraz ahal dena.

Izan, *ala* ez izan, horra hor auzia.

“Literaturan, hika *ala* zuka?”

“Literatura *ala* bertsozaria?”

“Literatura itzulua, *ala* originala?”

Originala, hitz fantasma hori, *fantasma* hitzaren adiera guztietan.

Kontraesanek bizi omen gaituzte, baina kontraesanek hil edo zauritu ere egiten gaituzte batzuetan. Eta, hala, irakurle euskaldun peto-petoonok ere, jatorrizko bertsiotzat harturik, hantxe joaten gara poz-pezik *Cumbres borrascosas* leitzera, Brontte andereak gaztelania zerbantinoan idatzi izan balu bezala liburua, aldi berean “uff eske itzulpena da” esanez nagitzen garen bitartean *Gailur ekaiztsuak* apaletik hartzera.

Baina literatura plagioaren plagioaren plagioa da.

Eta nola plagiatuko dugu *guk* osoki eta guztizki, nola izango gara euskaldunok, hizkuntza gailenduetako hiztunak bezala, plagiatzaile unibertsalak eta mundialak, beti-beti besteren zubibideak hautatzen baditugu mundua irakurri eta idazteko? Dickinson euskaraz plagiatu nahi duen idazleak nola plagiatuko du Dickinson euskaraz, Dickinson erdaraz bakarrik irakurri badu, itzulpentzat hartzen ez dugun baina itzulpena den bertsiotz batean?

Badakizue nola Umberto Eco esaten zuen itzultzea zera dela: “*Ia* gauza bera esatea”.

Baina (honatx *Manifestu erlatibista*) galderatxo bat: edozein komunikazio-moldetan, eta, are, edozein obra literariotan ere ez al da gertatzen horixe bera? Hiztunak ez al du burukoa *ia-ia* berdin ahoratzen? Poeta ez al da jarduten hegaztiaren lumajea *ia-ia* berdin tintaz lumaratu nahian?

Ia-ia.

“*Ia-ia*” batean, denik mendrenenean ere, denetik kabitzen da, bai: “Maite zaitut” esan, edo “*Ia-ia* maite zaitut” esan, ados egongo zarete nirekin, ez dago alde makala.

“Ia-ia” batean, egia da, kabitzen da errorea, eta *traditoreon* desleialtasun sakrilegoa; baina, inon kabitzekotan, ez al da “ia-ia” batean kabitzen arauen haustura ere, alegia literatura ere, eta haren posibilitate galaktiko guztiak?

Pentsatu al duzue zer gertatuko litzatekeen “ia-ia” idatziko bagenu ChatGPT edo halakoren batean? Hark igual ez luke gure “ia-ia” berbera ulertuko, baizik “I-A_I-A”, hots, “inteligentzia artifiziala-inteligentzia artifiziala”, hots, “ni-ni” ulertuko luke poz-pozik, berataz ari garelakoan, taupada bat bezala, “I-A”, “ni-ni”, zeren ez dezagun ahaztu txat horiek eta enparauak gure giza bideetatik elikatuak direla osoki eta hortaz gure nismotik eta hortaz gure taupada guztien dardaratik.

Nork kontatuko du gure kontakizuna hemendik aurrera?

Horra galdera primigenioa.

Eta betiko galdera horrek beti berritzen du bere burua garaiz garai, eta orain badirudi galdera piztia hori larruberritu dela eta galdera jada ez dela *nork*, baizik eta *zerk* kontatuko duen gure kontakizuna hemendik aurrera: *zerk* eta *zerentzat*.

Bai: aise eta arrazoiz koldartu gaitezke etorkizunean pentsatze hutsez.

Ez alferrik, maiz aipatzen da koldarraren dardara, uzcurraren dardara.

Gutxitan aipatzen da, ordea, ausartaren dardara. Amildegira ausartu aurrekoa ez ezik, ausartu ondorengoa ere: “Hau ere egin dinagu, ba” esaten duguneko dardara hori.

Lagunok, Joxepi, Xuban: poseitu dezagun barruraino elkar hiru egun hauetan. Eta hortik aurrera zer? Ba, hortik aurrera, ausar gaitezen.

Epikokeriarik gabe; nahi duenak prosaiko, nahi duenak poetiko, eta nahi duenak peripatetiko, baina ausar gaitezen. Ausartu “Irakurtzeak hobeak egiten al gaitu?” galdera zozoari “Ez!” erantzutera, eta eranstera: “Ez, eta zer”. Ausar gaitezen *demodé* dauden liburuak irakurtzera, eta norberaren balio ideologiko sakrosantuekin bat ez datozen idazleenak. Ausartu inoiz irakurketa bakarti eta isila baztertu eta TALDEAN ETA AHOTS GORAN IRAKURTZERA! Ausartu eta korapilatu gaitezen gehiago literaturaren zidorretan, eta ez hainbeste dilema antzuen kale itsuetan. Ausar gaitezen matematika unibertsala euskaraz oparitzen diegun bezala oparitzera gazteei eta ez hain gazteei literatura unibertsala euskaraz. Ausartu konplexuak erantzera, eta (h)agintari batzuei gogoraraztera zer hizkuntzatakoak diren hemen benetan literaturarik “subentzionatuenak”.

Ausartu, lagunok, eta ez joan lehengusu Peruren ezkontzara maiatzeko asteburu eder honetan: bildu Literaturiara.

Galderarik egiten ez den edo, hobeto esanda, geure zentzumenez eta zentzuaz jada fidatu ezinik galderak IA-txatari egiten dizkiogun garaiotan, eta egiten diren galdera urrietako

bat “Uff baina... horrek zertarako balio du?” den honetan, sekula baino beharrezkoagoa ez dakit baina beti bezain beharrezkoa dugu literaturaren plazan elkartzea.

Mobilaren jakinarazpenen dardarak brrrr sorginduta gauzkan honetan... liburuak dekorazio-aldizkarietako atrezzo bihurtu diren honetan... dabilen harria izateko, edertasun ederrak eta zatarrak bilatzeko, etsian goxo ez egiteko, eta, laburbilduz, ezertarako balio ez omen duten gauza baliotsu guztiak, gauzarik baliotsuenak ez galtzeko... gatozen oso ausart eta oso gu, beti gu, literaturara.

Maialen Berasategi Catalán